BERMEOKO ERRALODIEN FIGURA TXIKIAK EGITEKO HORNIDURA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.-

Kontratu honen xedea honako hau da:

Bermeoko Udaleko jabetzekoak diren lau erraldoien gomazko figura txikiak egitea.

Bermeoko Udalak, bi erraldoi bikote dauzka: arrantzaleak, Josefin eta Anton, eta baserritarrak, Mari eta Lorentzo. Herritarrek, harrera ezin hobea egiten dizkie Bermeoko Erraldoien konpartsaren kalejirei eta saioei.

Kontratu honen bidez, Josefin, Anton, Mari eta Lorentzo erraldoien figura txikiak egingo dira, 350 ale erraldoi bakoitzeko.

Plegu honen xedea Bermeoko lau erraldoien gomazko figura txikiak egiteko kontratazioa erregulatuko duten baldintzak ezartzea da.

2.– ESLEIPENDUNAREN ZEREGINAK.-

Esleipendunak lau erraldoien figura txikiak egiteko, hasieran diseinu lanak eta proiektua egingo du, binaka. Figura bakoitzaren modelatuak egingo dira, moldeak sortzeko.

Ondoren, baserritarren bikotearen 700 figura egingo ditu, 23 zentrimetrokoak, Mari eta Lorentzo (350 ale bakoitzeko). Gomazko figurak fabrikatuko dira, gero margoztuko diranak. Goma eta pinturak atoxikoak izango dira, indarrean dagoen legeriaren araudia betez.
Amaitzeko, figurak banan-banan boltsetan sartuko dira legeak eskatzen dituen baldintzen arabera.

Eta amaieran, bigarren bikotearen 700 figura egingo ditu. Kasu honetan, Josefin eta Anton arrantzaleen figurak izango dira.

Hornidura, Bermeoko Udaletxean entregatuko da.

CSV: 07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Sinadurea eta datea
SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 03/11/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/11/2025 12:07:42

EXPEDIENTE :: 2025KON_IOS_0017
Datea: 21/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3. – BERMEOKO UDALAREN ZEREGINAK.-

Udalari dagokio:

- Enpresari baimena ematea, figurak egin ahal izateko. Bermeoko Udalak Jabetza intelektualaren erregistroan inskripzioa egin du.
- Lau erraldoien argazkiak ematea.
- Lau erraldoiak ikusteko aukera ematea esleipendunari, behar diren lanak egin ditzan.
- Lanen hurrenkera proposatzea eta ikuskatzea.
- Lanak egiteko datak zehaztea eta esleipendunari jakinaraztea.
- Erraldoien figuren aurkezpena adieraztea.

4.– LANAREN EPEAK.-

Esleipendunak baldintza hauen arabera egingo du lana:

a) <u>Figurak egiteko aurreko lanak</u>

Erraldoien argazkiak zein neurriak hartzea, 2025eko azaroan
Erraldoien diseinu-lanak egitea 2025eko abenduan

b) <u>Erraldoien lehen bikoteko figurak egitea</u>

2026ko irailaren 11rako, 700 figura eginda egon behar dira, baserritarrenak.

c) <u>Erraldoien bigarren bikoteko figurak egitea</u>

2026ko abenduaren 4rako, 700 figura eginda egon behar dira, arrantzale bikotearenak.

5.- HIZKUNTZA-IRIZPIDE OROKORRAK.-

- Esleipendunak koordinazio-lanak egiteko jarriko duen koordinatzaileak udalarekin izango dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira, eta udalarekiko harremanetan euskara normaltasun osoz erabiltzeko gaitasuna izango du.

CSV: 07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Sinadurea eta datea
SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 03/11/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/11/2025 12:07:42

EXPEDIENTE :: 2025KON_IOS_0017
Datea: 21/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Esleipendunak udalari aurkeztuko dizkion agiri guztiak (ziurtagiriak, txostenak, fakturak…), euskaraz aurkeztuko dizkio.

- Komunikaziorako erabiltzen diren euskarrietan honako baldintza hauek bete beharko dira: hizkuntza argia erabiltzea eta hizkuntza-kalitatea bermatzea.

6. BERDINTASUN-IKUSPEGIA.-

Esleipendunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko ditu. Ildo horretan, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

- Hizkuntzen erabilera ez-sexista egitea ahoz nahiz idatziz emandako mezuetan.
- Kontratua betetzean erabiliko diren irudietan emakume eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatzea.
- Hezkidetza sustatuko duten materialak erabiltzea.
- Betebehar honek funtsezko betebehar izaera izango du Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean ezarritako ondorioetarako, eta hura betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi daiteke.

7.- KOORDINAZIOA.-

Erraldoien figura txikiak egiteko inguruko gai guztiak Kultura eta Hezkuntza Sailarekin koordinatuko dira.

CSV: 07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90014837300M7B0H4Q5M3S5

Sinadurea eta datea
SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 03/11/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/11/2025 12:07:42

EXPEDIENTE :: 2025KON_IOS_0017
Datea: 21/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia